

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2018ko EKAINA

% 22,2 hazi dira EAEko apartamentu turistikoetako ostatu-gauak, 2018ko ekainean

Hotel, landetxe eta apartamentu turistikoetan % 7,9ko gorakada egon da ostatu-gauetan, ekainean

Euskadiko apartamentu turistikoetan erregistratu diren ostatu-gauak, 2018ko ekainean, 26.929 izan dira; alegia, % 22,2ko igoera egon da aurreko urteko ekainean egondakoen gainean, Eustatek prestatutako datuen arabera.

Ostatu-gauak urte arteko bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban % 39,9 hazi da; Gipuzkoan % 38,8; eta Bizkaian % 2,5.

Bestalde, EAEko apartamentu turistikoetan bidaiarien 8.420 sarrera egon ziren 2018ko ekainean, alegia, % 13,8ko igoera egon da. Lurraldeen arabera, bidaiarien sarrerek Araban % 42,9 egin zuten gora, eta % 38,8 Gipuzkoan, baina % 7,2 egin dute behera Bizkaian.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerek, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerek		Batez besteko egonaldia	
	06/2018	m/m-12 (%)	06/2018	m/m-12 (%)	05/2018	05/2017
EUSKAL AE	26.929	22,2	8.420	13,8	3,20	2,98
Estatukoak	18.328	30,1	5.461	18,3	3,36	3,05
Atzerritarrak	8.601	8,0	2.959	6,5	2,91	2,87
ARABA/ÁLAVA	7.346	39,9	1.281	42,9	5,74	5,86
Estatukoak	6.654	42,4	1.217	41,6	5,47	5,44
Atzerritarrak	693	20,1	64	72,9	10,75	15,47
BIZKAIA	10.521	2,5	3.801	-7,2	2,77	2,51
Estatukoak	6.701	16,1	2.583	8,0	2,59	2,41
Atzerritarrak	3.820	-15,1	1.218	-28,5	3,14	2,64
GIPUZKOA	9.061	38,8	3.338	38,8	2,71	2,71
Estatukoak	4.973	36,6	1.662	21,5	2,99	2,66
Atzerritarrak	4.088	41,6	1.676	61,7	2,44	2,78

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia 3,20 egunekoa izan da azken ekainean, 2017ko ekainaren gainetik, orduan 2,98 egunekoa izan baitzen. Araban jaitsi egin da, iaz 5,86 egunekoa izan zen eta, aurtengo ekainean, 5,74 egunekoa; Bizkaian, iaz 2,51 egun izan ziren eta aurtan 2,77. Eta, Gipuzkoan, batez besteko egonaldiak mantendu egin dira 2017ko ekainekoekin; 2,71 egun ziren 2017ko ekainean.

2018ko ekaineko turisten balantzea

Hotel, landetxe eta apartamentuetan, 310.747 sarrera erregistratu ziren 2018ko ekainean, alegia, % 4,8ko igoera egon da, aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian EAEko sarrera guztien % 46,2 kontzentratzen da, baina sarreren baturak % 2,7 egin du gora. Gipuzkoan erkidegoko sarreren % 39,6 kontzentratzen da eta, bertan, % 6,5eko igoera egon da, Araban, EAEko sarreren % 14,1 kontzentratzen da, eta % 7,3ko igoera izan du, kasu horretan.

Ostatu-gauak, establezimendu turistiko hartzaileetan, guztira, % 7,9 hazi dira; Araban % 10,6, Gipuzkoan % 8,4 eta Bizkaian % 6,5.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Ekaina

	Gualdiak		Sarrerak	
	06/2018	m/m-12 (%)	06/2018	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	614.554	7,9	310.747	4,8
Araba/Álava	83.752	10,6	43.889	7,3
Bizkaia	275.835	6,5	143.702	2,7
Gipuzkoa	254.966	8,4	123.156	6,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62